

NAFARROAKO GOBERNUA

GARAPEN EKONOMIKOA

ESKUBIDE SOZIALAK

OGASUNA ETA FINANTZA POLITIKA

LEHENDAKARITZA, FUNTZIO
PUBLIKOA, BARNEA ETA JUSTIZIA

HERRITARREKIKO ETA
ERAKUNDEEKIKO HARREMANAK

HEZKUNTZA

OSASUNA

KULTURA, KIROLA ETA GAZTERIA

LANDA GARAPENA, INGURUMENA
ETA TOKI ADMINISTRAZIOA

SEGURTASUNA ETA LARRIALDIAK

Bihar irekiko da 2019ko maisu-maistren oposizio-deialdiaren izen-ematea

2015eko lan-eskaintza publikotik datozen 73 plazak ez galtzeko derrigorrezko tramitea da

Asteartea, 2018.eko apirilak 17

Hezkuntza kontseilariak iragarri zuen moduan, 2019an egingo dira maisu-maistren oposizioak, baina beharrezkoa zen 2018ko apirilaren 18aren aurretik argitaratzea 2015eko LEPari dagozkion 73 plazen deialdia, plaza horiek gal ez daitezen.

Gaur [argitaratu du NAO](#)n maisu-maistren kidegoan Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioaren kudeaketa esparruko lanpostuetan sartzeko hautapen prozedura, batetik, eta bestetik, maisu-maistren kidegoko karrerako langile funtzionarioek kidego horretan espezialitate berriak eskuratzeko prozedura. Urrats hau beharrezkoa da 2015eko LEPetik datozen plazak ez galtzeko: haur eta lehen hezkuntzako 73 plaza. Horretarako adostu zen deialdia, beranduenez, 2018ko apirilaren 18an egitea, oposizio-azterketak 2019an egingo diren arren, gainerako erkidegoekin bat eginez.

2015eko lan-eskaintza publikoak hiru urteko epea ezarri zuen plazen deialdia egiteko. Hori dela eta, beharrezkoa izan da plaza horien deialdia orain egitea, bestela galdu egingo zirelako, azterketak 2019ra arte egingo ez diren arren.

Oposizioan izen-ematea 20 eguneko epean amaituko da, BONen argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera; hau da, apirilaren 18an hasita.

Deialdi honen plaza kopuruari dagokionez, plaza eta espezialitate kopurua gehitu egingo da tramitatzen ari den ezohiko lan-eskaintza publikoari esker.

Espezialitate eta plaza kopurua gehitzen denean, izen-emate epe berri bat irekiko da hautagai berrientzat zein meritu berriak aurkezteko.